

COVID-19 ETA IKASTURTE BERRIA

Martxoaren 13an kolpetik bukatu ziren klaseak, konfinamendu egoeran sartu ginelarik, osasun publikoko arazo larri baten ondorioz, COVID-19a. Geroztik hona, milaka hildako eta gaixoaldi asko jasan behar izan ditu gure gizarteak igaro diren 90 egun hauetan. Hori izan da zalantzarik gabe ondorioz txarrena, tamalez.

Horrezaz gain, eta Hezkuntza arloan, ikastetxe guztiak ixtearen ondorioz, etxeak bihurtu ditugu, derrigor, eskola-etxe, lantoki-etxe, psikologo-etxe, zaintza-etxe, eri-etxe, jolas-etxe, sukalde-etxe, eta egoera guztietarako etxe. Etxea izateko zortea dugun guztiok noski.

Orain arte argi eta garbi ikusi da, ikastetxe bakoitza bere kabuz eta inolako baliabide, jarraibide ezta sostengurik gabe, ez ekonomikoa ez pedagogikoa, atera dela aurrera, Hezkuntza Sailaren erabakiei aurre hartuz momentu oro. Ikasleak diren gure seme-alabei ahal zuten laguntzarik onena, modurik egokienean eskaintzen, erabateko ziurgabetasun egoeran. Edozein kasutan ere, ahal egin itzela egin dugu guztiok, zuzendaritza taldeak, irakasle, ikasle eta familiok, bakoitza bere eremutik eta bere gaitasun eta gabeziekin.

Eta hara non, maiatzaren 7an, Hezkuntza Kontseilaria den Cristina Uriarte andereak, esaten duen, eskolara bueltatzeko ordua dela jada, maiatzak 18an denok eskolara, eta "entsaio" bat egingo dugula irailera begira, normaltasuna jada gure artean egongo balitz bezala. Hezkuntza ikuskariek ere, askok behintzat, ezer ez zekitelarik horretaz.

Horren aurrean gurasook ezezkoa adierazi genuen eta ekainetik aurrera, 4. DBHtik gorakoei eta borondatezkoa izan zedin, klasera bueltatzea eskaintzea ontzat jo genuen, beti ere osasun eta segurtasun baldintzak bermatzen baziren. Horta ari dira momenu honetan.

Eta berriz ere, Hezkuntza Sailak, atzoko datarekin, jakinarazi du, besterik gabe, ezer pasa ez balitz bezalaxe, **irailaren 7an ikasturte berria hasiko dela**. Eta argi eta garbi adierazi du ere baliabide gehiagorik hezkuntzara ez direla bideratuko.

Hezkuntza Sailak eskolak ireki nahi ditu baina guztion segurtasuna bermatzeko ardura zuzendaritza taldearen, irakasle, langile, eta ikasleen eta familien esku uzten du. Horrelako ardura eskola bakoitzaren gaitasunetatik kanpo dago, ezin baita bermatu guzti horren antolaketa modu egoki eta zentzuzko batean.

Segurtasuna bermatu beharrean, irailaren 8an normaltasun osoz klasera bueltatzeko proposamen horrek, zalantzak eta kezka besterik ez ditu areagotzen, eta **gure kezka eta zalantza guzti horiek helarazi nahi ditugu idatzi honen bitartez:**

*.- Prestatuta al dauka Hezkuntza Sailak ikasturte hasierarako Planen bat? Egon, baldin badago, ikastetxeetako zuzendaritza taldeekin adostu al da? Familiekin ez behintzat.

*.- Zein babes neurri bermatuko ditu Hezkuntza Sailak ikastetxeetara sartuko diren pertsona guztientzat? (irakasle, ikasle, garbitzaile, zuzendaritza taldeak, atezainak, hezitzaile, hornitzaileak, e.a.) Norik segurtatuko du eta ordainduko ditu babes neurri horiek?

*.- Testak egiteko asmorik ba al du Hezkuntza edo Osasun Sailak, edota tenperatura kontrolak? Langileei, irakasle zein ez-dozenteei, ikasleei....

*.- Zein babes material erabiliko da, bai pertsonentzat, (EPlak, maskarillak, guanteak, gelak, e.a.) baita geletan ere (manparak, panelak, lurreko marrak, ikas-materiala, ordenagailuak, zakarrontzi bereziak, e.a.)?

*.- Jarduna zenbat ordutakoa izatea proposatzen du Hezkuntza Sailak? Jarduna jarraian izango al da asteko egun guztietan? Ikastetxe bakoitzak modu autonomoan erabaki ahal izango du hori? Eta ikasturte hasieran, irailean, urrian, aurpegiko maskarillak jarrita, ez al da oso zaila, itogarria izango delako, hainbeste ordu jarraian egotea klasean sartuta, eta ikasten eta lanean gainera?

*.- Ikas-materiala dago geletan, boligrafoak, koadernoak, liburuak, chromebookak, paperak, arropa zintzilikarioak, karpetak, hiztegiak, e.a., e.a. Ezingo dira ukitu eta konpartitu. Nola bermatuko da hori? Nork, irakasleak? Klaseak ematen dituen bitartean, bigilantzia lanak eginez? Irakasleek klaseak bikain eman, aurrez aurre (15 ikasleei) eta online (gainontzekoei etxean) gehi polizia lanak egiten jarriko ditugu? Ikastetxeak baino kuartel militarrek emango dute zentroek.

*.- nola bermatuko du Hezkuntza Sailak eraikinen garbitasuna, desinfekzioa, ikasgelak, pasilloak, komunak, patioak eta gainontzeko espazioak? Ba al dago nahikoa garbitzailerik horretarako, jakinda ohiko jardunean aritzen direnak nekez iristen direla (murrizketak direla medio) ohiko garbitasuna egiteko?

*.- nola bermatzen da ikastetxera garraioz mugitu behar duten ikasleen presentzia? Herri desberdinetakoak direnean, lurralde desberdinetakoak direnean, e.a.

*.- Zenbait eraikinetan, dituzten ezaugarri fisikoengatik, erabat ezinezkoa da pertsonen arteko segurtasun distantzia minimoa bermatzea. Beste askotan, ia ezinezkoa. Horietan eta guztietan, nola bermatuko da gutxienezko segurtasun distantzia hori? Eta egongo balitz ere ikastetxe guztietan distantzia hori (ez dagoela) baina egongo balitz ere, ze zentzu dauka ikasleak elkarrekin jartzea gela baten barruan, ikastetxean, ezin badute elkarrekin egon, ezin dute elkar ukitu, apenas hitz egin, euren arteko interakzioak ekidin behar dituzte.....zein baldintza pedagogiko eta humanotan egongo dira ikasle horiek eta irakasleak?

*.- Ze ikasgelak erabiliko dira Ikastetxeetan? Ikasgela espezifikokoak erabiliko al dira: hala nola, informatika gela, laborategiak, plastikako gelak, teknologia, aldagelak, dutxak, gimnasioak, irakasle gelak, e.a.?

*.- Nork eta nola egingo ditu zaintzak, ikastetxera joan-etorrietan, sartu-aterak egiterakoan, patioan egoterakoan?

*.- Gela bakoitzean 15 ikasle bakarrik egon behar badute, eta jakinik gela bakoitzean ikasle dexente gehiago egon ohi dela normalean, besteek zer egingo dute bitartean? Online etxetik orain arte bezala? Zein irakaslerekin bertan klaseak ematen ari bada ohiko irakaslea?

*.- Egongo dira, zenbait irakasle, adinagatik, gaixo egoteagatik, etxean senideen zaintza lanak egiten egon behar dutelako edo dena delako egoeragatik, ezingo dutenak lanera bueltatu, Horien ordezkapenak bermatuko al ditu Hezkuntza Sailak?

*.- Edozein zalantza edo gertaera bereziren baten aurrean, nora jo beharko lukete irakasleek edota ez-dozenteek, edota ikasleek? Ahalbidetuko al da zerbitzu bereziren bat, telefonoren bat, kontaktu errearen bat, edozein egoerari aurre egiteko?

*.- Ikasleak arduratsuak eta “nagusiak” direla esan du Hezkuntza arduradunak, segurtasun neurriak mantentzeko, baina hori bat al dator errealitatearekin?

*.- Hurrengo ikasturteari begira, ikasketa planak berrantolatuko al dira? Martxoan utzi eta landu diren ikasgaiak berriz errebisatuko al dira, bai? Ez? Nola?

*.- Ebaluazio irizpideak betikoak izango al dira 2020/2021 ikasturtean ere, edo berrantolatu egingo dira irizpide horiek?

Horregatik, eta beti ere osasun publikoak ezarritako adierazleak gidatuta poliki – poliki egoera berrira irekitzeko prestatu behar gara, ahalik eta berme gehienekin, guztion Osasuna, osasun publikoa lehenetsiz; eta alboratu gabe Hezkuntza eskubidea, eskubide sozialak, zibilak eta ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzeko baldintzarik egokienak eraikitzea. Beti ere, irakasle, ikasle, ikastetxeko gainerako langile eta familien ongizatea helburu izanda.

OSASUN PUBLIKOA LEHENETSIZ, KALITATEZKO HEZKUNTZA BERMATU BEHAR DIEGU GURE SEME-ALABEI, IKASLE GUZTIEN AUKERA BERDINTASUNA BERMATUZ BETI ERE, ETA HORI AURRERA ERAMAN AHAL IZATEKO, GUZTION ESKUBIDE SOZIAL ETA ZIBILAK BERMATU BEHAR DITUGU, IRAKASLE ZEIN FAMILIENA, GUZTION ONGIZATEA HELBURU IZANDA.

ETA HORRETARAKO HEZKUNTZA SAILAK BALIABIDEAK JARRI BEHAR DITU, BESTELA EZINEZKOA DA EZER GERTATU EZ BALITZ BEZALA IKASTURTE BERRIA “NORMALTASUN BERRI”AN HASTEA, EGOERA EZ DENEAN IZANGO ZIUR ASKI BERDINA.

KLASEAK SEMIPRESENTZIALAK IZATEKO AUKERA TXIKIENAREN AURREAN, BALIABIDEAK JARRI BEHAR DITU HEZKUNTZA SAILAK, PERTSONALAK (irakasleak, (klaseak presentzialki eta online emateko, materiala berria sortzeko, osasuna eta segurtasun prebentzioarako arduradunak, zuzendaritza taldeak indartzeko), hezitzaileak, jangelako begiraleak, garbitzaileak, psikologoak, erizainak ikastetxetan, ikastetxean bertan aholkularitza talde bat, e.a.) ZEIN MATERIALAK, (osasun eta segurtasun bermerako materiala, digitalizazio oso baterako materiala, higiene eta garbitasun/desinfekzio materiala, e.a.)

Hezkuntza Sailak ezin du jarraitu bere kabuz eta unilateralki hartzen erabaki guztiak, Hezkuntza Komunitatea osatzen dugun eragileokin ezer adostu gabe. Gutxienezko baldintza guztiak bete ezean zaila ikusten dugu normaltasun osoz hastea ikasturte berria, baldin eta COVID-19ak gure artean jarraitzen badu.

Eta gutxienezko aldarrikapen nagusi horiek ondorengo hauek dira:

1.- Osasun Publikoaren gidaritzapean osasun eta segurtasun neurri guztiak bermatu behar ditu.

2.- Hezkuntza Sailak inbertsio handia egin beharra dauka hezkuntzan, baliabide pertsonala (ikastetxeetako RPTak indartu, erizainak eta psikologoak jartzearekin batera) eta materiala bermatzeko ikasturte berria hasi baino lehen.

3.- Garbiketa eta desinfekzio plangintza zorrotza bat egin beharko du ikastetxe bakoitzerako.

4.- Gela bakoitzeko ikasle/irakasle ratioa egokitu beharko da eta horren ondorioz ikasketa plangintza zehatz bat osatu beharko du. Espazio guztien egokitzapena eta erabileraren berrantolaketa ziurtatuz.

5.- Arreta berezia jarri beharko da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleengan, jasan diren gizarte arrakala guztiei aurre egin ahal izateko.

6.- Eskola garraioaren egokitzapena higiene eta distantzien neurrien arabera.

7.- Ikastetxeetara sarrera eta irteera guztiak antolatzeko protokoloa zehaztu beharra, jolas garaiak, eta jangela aurretik/ondorengo denborak barne.

8.- Ezin du utzi Hezkuntza Sailak antolaketa guztia irakasle eta familien gain, kontziliazio neurri berriak martxan jartzen ez badira.

HERNANI BHI INSTITUTUKO MANDAZUBI GURASO ELKARTEA
Hernanin, 2020ko ekainaren 9an

COVID-19 Y NUEVO CURSO

(traducción automática, disculpad erratas)

El 13 de marzo las clases terminaron de golpe, entrando en estado de confinamiento, debido a un grave problema de salud pública, el COVID-19. Desde entonces, nuestra sociedad ha sufrido miles de muertos y muchas enfermedades en estos 90 días que han pasado. Esa ha sido sin duda la peor consecuencia, lamentablemente.

Además, y en el ámbito educativo, el cierre de todos los centros ha hecho que los hogares se conviertan obligatoriamente en centros escolares, centros de trabajo, casas de psicólogos, casas de cuidados, hospitales, casas de recreo, casas de cocina y casas para todas las situaciones. Todos los que tenemos la suerte de tener casa por supuesto.

Hasta ahora se ha visto claramente que cada centro ha salido adelante por sí mismo y sin ningún recurso, instrucción ni apoyo, ni económico ni pedagógico, anticipándose en todo momento a las decisiones del Departamento de Educación. La mejor ayuda que podían a nuestros hijos que son estudiantes, ofreciéndolos de la manera más adecuada, en un estado de incertidumbre total. En cualquier caso, todos hemos hecho lo posible, el equipo directivo, profesores, alumnos y familias, cada uno desde su ámbito y con sus capacidades y carencias.

Y he aquí que, el 7 de mayo, la consejera de Educación, la señora Cristina Uriarte, dice que ya es hora de volver a la escuela, el 18 de mayo todos a la escuela, y que vamos a hacer un "ensayo" de cara a septiembre, como si la normalidad ya estuviera entre nosotros. Incluso los inspectores de educación, al menos muchos, no sabían nada de eso.

Ante esto los padres expresamos nuestra negativa y a partir de junio, 4. Valoramos que se ofreciera la vuelta a clase a los mayores de la ESO y para que fuera voluntaria, siempre que se garantizaran las condiciones de salud y seguridad. En ello están en este momento.

Y de nuevo, el Departamento de Educación, con fecha de ayer, comunica que simplemente, como si no hubiera pasado nada, el 7 de septiembre comenzará el nuevo curso. Y también ha manifestado claramente que no se destinarán más recursos a la educación.

El Departamento de Educación quiere abrir las clases pero delega la responsabilidad de garantizar la seguridad de todos en el equipo directivo, profesores, trabajadores, alumnos y familias. Este tipo de responsabilidad está fuera de las capacidades de cada escuela, ya que no se puede garantizar la organización de todo ello de una manera adecuada y razonable.

En lugar de garantizar la seguridad, esta propuesta de volver a clase el 8 de septiembre con total normalidad, no hace sino aumentar las dudas y la preocupación, y queremos trasladar todas nuestras preocupaciones y dudas a través del siguiente escrito:

*.- ¿tiene elaborado el Departamento de Educación algún plan de inicio de curso? Si existe, ¿se ha acordado con los equipos directivos de los centros? Al menos con las familias, no.

*.- medidas de protección que garantizará el Departamento de Educación para el acceso a los centros ¿Para todas las personas? (Profesores, alumnos, limpiadores, equipos directivos, porteros, educadores, Proveedores, etc.) ¿Quién asegurará y pagará esas medidas de protección?

* .- ¿Tiene intención de realizar los test el Departamento de Educación o Salud o la temperatura ¿Controles? Al personal, docente o no, al alumnado.

* .- qué material de protección se utilizará, tanto para las personas (EPI, mascarillas, guantes, Aulas, etc.) también en aulas (mamparas, paneles, líneas terrestres, material de estudio, ordenadores, Papeleras especiales, etc.)?

* .- ¿Cuántas horas propone el Departamento de Educación? Actuación seguida ¿Será todos los días de la semana? Cada centro podrá decidir de forma autónoma ¿Tiene eso? Y a principios de curso, en septiembre, en octubre, con mascarillas faciales, ¿no es muy difícil, porque va a ser asfixiante, estar tantas horas seguidas metido en clase y estudiando y trabajando.

* .- En las aulas hay material de estudio, bolígrafos, cuadernos, libros, chromebooks, Papeles, ropa colgante, carpetas, diccionarios, etc. No se podrán tocar ni compartir. ¿Cómo se va a garantizar eso? ¿Quién, los profesores? Mientras da clases, ¿haciendo trabajos de vigilancia? Impartir las clases de forma impecable, presencialmente (15 alumnos) y online (resto en casa) más ponemos a hacer labores de policía? Parecer cuarteles militares más que colegios sus centros.

* .- cómo va a garantizar el Departamento de Educación la limpieza de los edificios, la desinfección, las aulas, ¿Pasillos, baños, patios y demás espacios? ¿Hay suficiente personal de limpieza para ello, sabiendo que los que se dedican a la actividad habitual difícilmente llegan ahora (por las restricciones) para realizar la limpieza habitual?

* .- ¿Cómo se garantiza la presencia del alumnado que tiene que desplazarse en transporte al centro? Cuando sean de poblaciones distintas, de territorios diferentes, etc.

* .- En algunos edificios, por sus características físicas, es totalmente imposible que las personas garantizar la mínima distancia de seguridad entre ellos. En otras muchas, casi imposible. En ellos y en todos ellos, ¿cómo se garantizará esa distancia mínima de seguridad? Y aunque lo hubiera en todos los centros educativos esa distancia (que no existe), pero aunque la hubiera, qué sentido tiene el alumno o alumna ponerse juntos dentro de un aula, en el centro, si no pueden estar juntos, no se pueden tocar, apenas hablar, deben evitar las interacciones entre ellos. ¿En qué condiciones en pedagógicas y humanas estarán estos alumnos y profesores?

* .- ¿Qué aulas se van a utilizar en los centros? ¿Se utilizarán aulas específicas: Cómo, aula de informática, laboratorios, aulas de plástica, tecnología, vestuarios, duchas, gimnasios, aulas de profesores, etc.

* .- quién y cómo va a realizar los cuidados, en los desplazamientos al centro, las entradas y salidas ¿Cuándo se hace, cuando se está en el patio?

* .- Si sólo tienen que estar 15 alumnos por aula y a sabiendas en cada aula que normalmente hay muchos más alumnos, ¿qué van a hacer los demás mientras tanto? ¿Online, desde casa como hasta ahora? ¿Con qué profesor está impartiendo clases, el profesor habitual?

* .- Existirá personal docente que por edad, enfermedad, cuidado de familiares en el domicilio no podrá reingresar por encontrarse realizando esos trabajos o circunstancias que lo justifiquen, ¿Garantizará el Departamento de Educación sus sustituciones?

* .- ante cualquier duda o suceso especial, ¿a dónde deberían dirigirse el profesorado o los no docentes, o el alumnado? ¿Se habilitará algún servicio especial, algún teléfono, algún contacto real para afrontar cualquier situación?

*.- La responsable de Educación dice que el alumnado es responsable y "adulto" para mantener las medidas de seguridad, pero ¿eso se corresponde con la realidad?

*.- ¿Se van a reorganizar los planes de estudios de cara al próximo curso? ¿Se revisarán de nuevo las materias que se han trabajado desde marzo, sí? ¿No? ¿Cómo?

*.- ¿Los criterios de evaluación seguirán siendo los mismos en el curso 2020/2021, o ¿Se van a reorganizar estos criterios?

Por ello, y siempre guiados por los indicadores establecidos por la sanidad pública tenemos que prepararnos para abrirnos a la nueva situación, con las máximas garantías, la Salud de todos, priorizando la salud pública; y sin obviar el derecho a la educación, los derechos sociales, civiles y construir las condiciones más adecuadas para garantizar la igualdad de oportunidades de todo el alumnado. En todo caso, buscando el bienestar del profesorado, del alumnado, del resto del personal del centro y de las familias.

PRIORIZANDO LA SALUD PÚBLICA, DEBEMOS GARANTIZARLES UNA EDUCACIÓN DE CALIDAD A NUESTROS HIJOS, GARANTIZANDO SIEMPRE LA IGUALDAD DE OPORTUNIDADES DE TODOS LOS ALUMNOS, Y ESO, PARA PODER LLEVARLO A CABO, HAY QUE GARANTIZAR LOS DERECHOS SOCIALES Y CIVILES DE TODOS, TANTO DEL PROFESORADO COMO DE LAS FAMILIAS, TENIENDO COMO OBJETIVO EL BIENESTAR DE TODOS.

Y PARA ESO EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN TIENE QUE PONER RECURSOS, SI NO, ES IMPOSIBLE COMO SI NADA HUBIERA PASADO EMPEZAR EL NUEVO CURSO EN LA "NUEVA NORMALIDAD", CUANDO PROBABLEMENTE LA SITUACIÓN NO SEA LA MISMA.

ANTE LA MENOR POSIBILIDAD DE QUE LAS CLASES SEAN SIMIPRESENCIALES, EL DPTO. DE EDUCACIÓN, DEBE PROVEER DE RECURSOS DE PERSONAL (profesorado, (clases presenciales y online, creación de nuevo material, prevención de la salud y seguridad, responsables para reforzar equipos directivos), educadores, monitores de comedor, personal de limpieza, psicólogos, enfermeros en centros educativos, un equipo de asesoramiento en el propio centro, etc.) Y MATERIALES, (material de garantía de salud y seguridad, material para una digitalización completa, Higiene y limpieza/desinfección material, etc.)

El Departamento de Educación no puede seguir decidiendo por sí mismo y de forma unilateral, sin acordar nada con los agentes que conformamos la Comunidad Educativa. Si no se cumplen todos los requisitos mínimos vemos difícil empezar con total normalidad el nuevo curso si el COVID-19 sigue entre nosotros.

Y nuestras reivindicaciones mínimas principales son las siguientes:

- 1.- Garantizar todas las medidas sanitarias y de seguridad bajo la dirección de Salud Pública.
- 2.- El Departamento de Educación debe realizar una importante inversión en educación, recursos y personal (reforzar los RPTs de los centros con la instalación de enfermeros y psicólogos). Y para garantizar el material antes del inicio del nuevo curso.
- 3.- Deberá realizar una rigurosa planificación de limpieza y desinfección para cada centro.
- 4.- Adecuación del ratio alumno/profesor por aula y consecuentemente, deberá elaborar un plan de estudios específico. Adecuación de todos los espacios y asegurando la reorganización del uso.

- 5.- Especial atención a las necesidades educativas especiales de los alumnos, para poder hacer frente a todas las brechas sociales en la persecución.
- 6.- Adecuación del transporte escolar en función de las medidas de higiene y distancias.
- 7.- Definir el protocolo de organización de todas las entradas y salidas a los centros. Necesidades, incluyendo tiempos de juego, y antes/después del comedor.
- 8.- El Departamento de Educación no puede dejar toda la organización sobre el profesorado y las familias, si no se ponen en marcha nuevas medidas de conciliación.

ASOCIACION DE MADRES Y PADRES MANDAZUBI DE HERNANI BHI INSTITUTUA
En Hernani, a 9 de junio de 2020